

JARDUERA-PLANA (2. BERTSIOA) **(22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)**

[Makina eta Trakzio Elektrikoak]

[Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua]

[2020/04/16]

Irakasgaiaren koordinatzailea
[José Ramón Hernández González]

AURKIBIDEA

1. Eduki teoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko eta ezohiko deialdia: orientabideak

1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Hiru ataletan antolatuta dago irakasgaia:

- Indukzio-makina edo makina asinkronoa.
- Makina sinkronoa.
- Eskuilarik gabeko (brushless) eta erreluktantziako makinak.

Eta horiei buruz gai hauek jorratuko ditugu:

- Oinarri elektromagnetikoak
- Eraikin-ezaugarriak
- Zirkuitu baliokidea
- Momentu eragilea eta potentzia
- Abioa
- Funtzionamendu iraunkorra
- Balaztatzea
- Kontrola
- Erabilera
- Maniobra eta babesa

2. METODOLOGIA

Irakaskuntza-sistemak gela irauliaren metodologia du oinarri. Era horretan, ikasleek gelatik kanpo bideo, testu eta material didaktikoen bidez landuko dituzte kontzeptuak, eta eskoletan kontzeptu horiek taldeka aplikatuko dituzte.

Jarduerak Blackboard Collaborate plataformaren bidez garatuko dira.

Aplikazio-zeregin hauek egingo ditugu:

- Liburuen, artikuluen, aurkezpenen eta bideoen bidez jasotako informazioaren analisisa eta azalpena.
- Irakasleak emandako makina-saiakuntzetako emaitzen analisisa eta azalpena

- Matlab-en egindako kalkuluak
- Simscape Power Systems-ekin zirkuituen simulazioak
- Kontzeptu-mapak
- Termino-glosarioa
- Ohiko akatsen eta zalantzen zerrendak.

2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK

Klase magistralak Blackboard Collaborate-ren bidez egingo ditugu, audioa, fitxategiak eta aplikazioak partekatuz, egun arte garatu dugun metodologia aktiboa mantenduz. Saio horietan dokumentu honen 1. atalean aurkeztu ditugun edukiak landuko ditugu.

2.2. MINTEGIAK ETA PRAKTIKOAK

Irakasgai honek ez dauka mintegirik, ezta gela-praktikarik ere.

2.3. LABORATEGIKO PRAKTIKAK

Planifikatutako makina-saiakuntzak egiteko ezinaren aurrean, ikasleak saiakuntzen emaitzak jasoko ditu, horiekin ondorioak ateratzeko eta Matlab-en eta Simscape Power Systems-en kalkulu eta simulazioekin egiaztatzeko.

3. EBALUAZIO-SISTEMAK

Irakasgaiaren ebaluazioa jarraiturako ekintzak hauek egingo ditugu:

- Banako galdetegiak
- Taldeka egindako kontzeptu-mapak, emaitzen analisiak eta azalpenak, kalkuluak eta simulazioak.
- Taldekako bilduma-proiektua
- Proiektuaren banakako azalpena.

Ebaluazio-ekintza bakoitzeko pisuak hauek dira:

- Banako galdetegiak %20
- Taldekako zereginak %30

- Taldekako bilduma-proiektua %20
- Proiektuaren banakako azalpen idatzia %30.

Atal gaindituetako notak mantenduko dira ezohiko deialdian.

Ikasleak lauhilekoaren 10. astea baino lehen eskatzen baldin badu, aukera dauka azken ebaluazio-sistema hautatzeko.

Proba presentziala posible ez bada, beharrezko ebaluazio-ekintzak urrunetik egingo ditugu eGela eta Blackboard Collaborate plataformen bidez.

4. OHIKO ETA EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

Ohiko eta ezohiko deialdien probak egitura eta pisu hauek izango dituzte:

- Banako galdetegiak: %20
- Bilduma-proiektua (banaka edo taldeka ikasleak erabakita): %50
- Proiektuaren banakako azalpen idatzia %30.

Ezohiko deialdian ebaluazio jarraituan edo deialdi ohikoan atal gaindituetako notak mantenduko dira.

Deialdiari uko egiteko, nahikoa da deialdiaren proba ofizialetara ez aurkeztea.

Proba presentziala posible ez bada, beharrezko ebaluazio-ekintzak urrunetik egingo ditugu eGela eta BlackBoard Collaborate plataformen bidez.